

JOSE FELIX AZURMENDI

«Ezker abertzaleak EAJren beharra dauka»

(Durango, 1941). Bigarren belaunaldiko ETAko militantea. Venezuelara erbesteratu zen 1966an. Kazetari bilakatu zen bertan. *Egin, Deia, Radio Euskadi* eta *EiTBko* zuzendari karguetan jardun du urteetan. *PNV-ETA Crónica oculta (1960-1979)* liburuaren egilea da Urte haietako EAJz eta ETaz egin dugu berba, baita abertzaletasunaren egungo egoeraz ere.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Judit Fernandez

PNV-ETA CRÓNICA OCULTA (1960-1979) liburura iristeko bidea duzu elkarrizketa hau. Bien bitartean, premisa bat: “Bere historia ezagutzen ez duen herriak, ez du bere oraina ulertzen”.

“Belaunaldi berriek ez dute beraien historia ezagutzen, gure herriaren historia”. Zure iritzia da.

Bai. Ez dute historia ezagutzen eta ez dute interes larregirik alderdiaren eta erakundearen historia ezagutzeko, baina errua ez da beraiena. Buruzagiak dira, EAJkoak zein ezker abertzalekoak, egungo garaira egokitutako historia moldatu dutenak. Modu horretara, herri honen egoera baretzen lagunduko lukeen historia erakargarriago bat galdu da.

Zein neurrian aldatu zen historia, Agirre lehendakariaren heriotza goiztiarrarekin? Eta EAJren bilakaera?

Agirre hiltzean bere proiektua hilik dago, bere prestigioa, ordea, ukitu gabe gelditzen da. Agirre lider oso errespetatua izan zen, askok jarraitua. Monzonek dioenez, “bere rola gaztetatik barneratua zeukan, guztiz kontziente zen horretaz”. Ziur aski, ezin izango zukeen eragotzi gerra egin ez zuen belaunaldiarekin apurtzea, baina ezagutu zutenek egoera askoz hobeto bideratuko zuela diote. *Ensko Gudariak* kantaren egile Jose Mari Garate jeltzale buruzagiari hil aurretik entzun nion, Jose Antonio Agirre herri abertzalearen



«Urkulluk Quebecoko bideari segitu beharra aipatzen du, orduan, gogorarazi beharko zaio»

Zein ondorio atera duzu EAEko azken hauteskudeez? Abertzaleen emaitzei dagokienean.

EAJren emaitzak onak dira, eta egoera behartu gabe, balio zaizkio garai berri bat lideratzeko. EH Bilduren emaitzak ere onak dira eta hauetaz baliatu behar du. Jaurlaritzan sartzeak ekarriko liokeen kargaz libratu da, hartara, zer izan eta egin nahi duen gogotatzeko beta dauka. Orain arte inprobisatzen eta erabakiak hartzen jardun du, ongi eta trebe samar, sartuta zegoen tranpatik atera ahal izan da. Baina, orain, garai berri bat abiatu behar du, egitura berri batez, barne demokratia errespetatuz, arestiko militantzia bikoitza eta hirukoitza ahaztuz. Gizartearen aurrean argi eta garbi azaldu behar du proiektu berriekin, baita hauek ondo azaldu ere.

Zein dira gakoak abertzaletasunaren helburuak gauzatzeko?

Ezker abertzaleak EAJren beharra dauka, presoen arazo larria konpontzeko dagoen beharraz Euskal Herria ohartarazteko. Konponketa ez dago EAJren esku, baina lagundu dezake Espainiako Gobernuak presionatzen, baita indarrean dauden salbuespenezko lege ez-demokratikoak eta errepresiboak nazioarteko instantzietara eramaten. Halaber, eta horregatik, ezker abertzaleak Urkulluk zuzendutako

Jaurlaritzaren aurkako oposizio sistematikoa eta berehalakoa egiteari uko egin beharko lioke. Ezker abertzaleak Urkulluri egiten utzi behar dio, eta kontuak eskatu bere promesak betetzen ez dituenean, hori baita, bide batez, hurrengo hauteskunde autonomikoak presatzeko modu egokiena. Bestalde, PSOE-PSErekin batera egindako edozein oposizio gaizki ikusia izango litzateke ezker abertzaleko jarraitzaileen aldetik.

Eskozian iragarritako erreferenduma egingarria ikusten duzu hemen?

Datozen lau urteotan, ez. Halere, Urkulluk ARGIAN [2.340 zenbakian] Quebecoko bideari segitu beharra aipatzen du. Orduan, gogorarazi beharko zaio.

Zein dira "euskal auzia" deitua ebazteko gakoak?

Ez dakit zein diren gakoak, ezta oso argi ere "euskal auzia"z zer ulertu behar den. Ordea, argiago daukat egin beharreko bidea interesgarriagoa dela bere helburu nagusia baino. Hau da, euskal abertzaleen ardurek eta kezkek ekarri behar dute bide hori egiteko modua: euskaldunak beren auzokoengandik benetan diferentziatzen dutena ez dira gai ekonomikoak —eta are gutxiago Europar Batasunaren barruan— gai kulturalak baizik; gai berezkoak dira, kontzientzia nazionalari zentzua ematen

diotenak, babestuak eta garrantuak izan behar direnak.

Noraino iritsi daiteke katalanen ekimena eta nola eragin dezake Euskal Herrian?

Ez dakit noraino iritsiko den, baina ez naiz ados ekimena abantaila ekonomikoak lortzeko baino ez dela esaten dutenekin. Inork ez zuen aurreikusi, ezta imajinatu ere, agintari katalanak horren urruti joango zirenik, horren argiak izatea euren aldarrikapenetan eta eskaeretan. Bistan dago: EAJk ez du aldarrikatzeko, eskatzeko eta presionatzeko modu horretara bildu nahi, ez zaio interesatzen.

Independentziaren trena utopia al da? Edo aitzitik, Euskal Herria erai-kitzeko ezinbestekoa al da?

Independentziaren asmoa ondo azaldu beharra dago. Behar den denbora hartu behar da, baina luzetsi gabe prestatzen hasi behar da. Gaur egun, agitazioarako erreklamo bezala jarduteko baino, berau apurka-apurka zehazteko baldintzak daudela uste dut.

EAEen erreferenduma egingo balitz, independentziaren aldeko aukera aterako al litzateke irabazle?

Gaur egun ez. Baina egin ahal izango balitz, uste ez dudana, egite soila aurrerapausoa litzateke etorkizunean eskubide hori finkatzeko. Hau da, Quebecen bezala.

lider handiena izan zela, eta alderdiaren liderra Juan Ajuriagerra.

ETAren sorreraren arrazoiak laburbildu zenitzake?

ETA sortzen da gerra osteko errepresioa hain basatia ez denean. ETAren sortzaileek Israel, Zipre, Tunisia eta Aljeriako borroka modu berrien eragina jaso zuten, eta ez hainbeste Kubako jokabideena, hainbatek aditzera eman nahi izan dutenez. ETA ekintzari ekiteko sor-

tzen da, baina praktikan jartzea asko kostatzen zaio. Gaur egun ez dira jaio zeneko baldintzak ezagutzen, eta are txarragoa dena, modu okerrean azaltzen dira. Sortzaileak klase ertaineko unibertsitarioak ziren, goi klasekoa kasuren batean, baita hirikoak ere. Haien lekua hartu zutenek, sortzaileek beraiek praktikatzen ezin zuten borroka indarrean jarri zuten. Hauek klase herrikoia-gokoak ziren, baserritik eta itsasotik zetozenak. Liburu hau irakurrita

ere, ETAren nortasuna ez da ondo definitua agertzen, ezta etakideak ere. Haatik, hori ulertzen lagundu dezaketen lekukotasunak ekartzen saiatu naiz, intimoak batzuetan, kontakizun lauak, baina adierazgarriak. Ezin da ETA definitu, ETA bat baino gehiago izan direlako; batzuetan garai berean elkarren ondoan bizi izandakoak. ETA definitzeko, Manuel Irujorekin bat eginenez, bere obretan erreparatu beharra dago agirietan baino.

Eli Gallastegi, Jagi-Jagiko burua, alderdiarekin kritikoa, Irujoren aurka oldartu zen: “Gaztedi hori [ETAkoa] bestelakoa izan zitekeen, hutsune bat geratu izan ez balitz, denon arduraren den hutsa”.

Elik familiaren inguru hurbilean hutsune horren zantzuak ditu, ongi ezagutzen ditu EAJrekin batera borrokatu nahi duten gazteak –Eusko Gaztedi, barbararako–, Eusko Jaurlaritzaren aginduetara jardun ezin izan zuten gazteak. Baina Jaurlaritza akituta aurkitu zuten, etsituta. Urte luzetan behin eta berriz saiatu izan ziren, askok uste duenaren kontra. Eli zuzen ari zen, gerrako buruzagiek hutsune bat onartu zutela esatean.

EAJren eta ETaren arteko oldarraldia handituz joan zen: Sota afera, lekuko. Erresistentzia antolatzeke adostasunik ez. Irujok, halere, Jaurlaritzaren zerbitzuko ETA nahi du. Nola azaldu hori egungo belaunaldiei?

Irujok irlandar eredu ezagutzen du, baita judutarrarena ere, eta beraietan ekintzaileen eta instituzioen arteko isi-

leko erabakiak eta akordioak ikusten bide ditu, ez enfrontamenduak behinik behin. Ordea, batzuetan, ETAk Jaurlaritza etsai nagusitzat hartu duela inpresioa dauka. Une batzuetan diot, ez beti, eta ez beti modu berean, baina Irujoren beste burukide batzuek ez

“Ez dakit zein diren gakoak, ezta oso argi ere ‘euskaletza’z zer ulertu behar den. Ordea, argiago daukat egin beharreko bidea interesgarriagoa dela bere helburu nagusia baino”

dute bat egiten berarekin. Berak, IRAren edo Irgoumen antzera jokatuko lukeen ETA hobetsi zezakeen, etsaien aurka etsai eta ardura instituzionalak zituenekin [EAJ] lagun.

Jeltzaleentzat, eta Irujorentzat bereziki, Sota familia ukitu ezina zen. Baina ETAk ukitu zuen hasiera beretik. Hala ere, ezin da esan harekin afera gehiago izan zenik, ezta

Iparaldean, Filipinetan, Mexikon edota Lekeition eta Negurin bizi ziren beste familia dirudunekin ere.

Elkar juzkatzean, EAJko eta ezker abertzaleko belaunaldiek ton-tokeria franko esaten diote elkarri. Ignorantziaren eta interesaren emaitzak dira, historia gaur egungo interesen arabera ulertua izan dadin. Liburua idatzi dut bereziki, unean uneko lekukotasun biziak ekartzeko, historiako distortsiorik eta estalkirik gabe. Horretaz jabetu nahi duena, jabetuko da.

Lehen belaunaldiaren ostean (Madariaga, Txillardeggi, Benito del Valle, Manu Agirre) bestelako bat dator: Jose Maria Eskubi nabarmentzen da, zu zeu partaide izaki. ETaren historiako une gakoak dela esan duzu inoiz. Zergatik?

Eskubi garrantzitsua da, baita Txabi Etxebarrieta eta Jose Luis Zalbide, nor bere rolean. Eskubi liderra da “barnean” [Hegoaldean] Txabik hiltzeko eta hila izateko urratsa ematen duenean, artean, Zalbidetik *Iraultza!* agerkerian horren azalpena

Kalean da azaroko



aizu!

- Arantzadiko azken uzta
- Lazkaoko artxibategia ezagutzen
- Irratia euskaraz, Hala Bedi!
- Foruko AEK barnetegian bisitan
- Zuloak arin-arin
- Neska-mutilak, tira harriari!

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org



“Buruzagiak dira, EAJkoak zein ezker abertzalekoak, gaur egungo garaira egokitutako historia eta moldatu dutenak. Modu horretara, herri honen egoera baretzen lagundu lukeen historia erakargarriago bat galdu da” dio Azurmendik.

ematen du, eragin itzela izan zuena. Haiekin abian da gerora jarraituko duen ETA: Eustakio Mendizabal, Txomin Iturbe, Peixoto... Geroago Argala, Mugika Arregi, Pertur eta enparaurekin jarraitu zuena. Lehen urratsa, Meliton Manzanasen exekuzioarekin eman zuten, K. de Zunbeltzek (Jose Luis Zalvide) teorizatu zuen espiral iraultzailea.

EAJ, gerra egin eta sufritu duena, ez dute ihardespeneke bortizkeriek kikiltzen, horien izateko arrazoiak nahiko eta sobera ikusten ditu. Besterik da, eurak horiek praktikan jartzeko prest egotea, praktika horietan ahalegin batzuk egin zituzten arren. Esaterako, Ugarte apaizari, ETAk espirala indarrean jarri aurretik, nolabait, barregarria iruditzen zaio ETAk hamar urtez jotzekotan aritzea, baina, funtsean, ez jotzeko.

EAJren kezka ETA bere eskutik joan izana da. ETArri berriz, bere larderian, ez diote ardura ez EAJk ez Eusko Jaurlaritzak, biak hiltzat jotzen ditu betiko.

Julio Ugarte apaizaren zita da hau, hain zuzen ere: “Pistola eraman, eta ez erabiltzeak sutu egiten nau”.

ETAko sortzaileek ez zuten tiro bakarra egin. Madariagak, Uribek,

Etxabek edo Ozaetak praktikan bai. Ugarteren hitzek, 1969an, EAJko sentsazio orokorra aditzera ematen dute, hau da, “jauntxo handiuste” haiek ez zirela teoritik praktikara pasako.

1968: Euskadi eta mundua astindu zituen urtea. Horrela utzi zuen Txabi Etxebarrietak idatzia: Joatea besterik ez daukat / bakarrik / ltxaron / eta lurak oraindik maita gaitzala.

Txabik anaia Jose Antonioren eragina jaso zuen, eta honek, halaber, Eli Gallastegirena. Gerrako belaunaldiaren eta abertzale berrien arteko batasunaren kate-begiak dira. Txabi da tabua hautsi eta hiltzen duena. Txabik [Pardines] guardia zibilaren heriotza bilatu bide zuen, baita berea ere, hark guztiak signifikatuko zuenaz kontziente izaki. Bera hiltzen dutenean, haren kideak behartuak sentitu ziren heriotza hari ihardesteko eta Manzanas hiltzen dute. Hala ere, Manzanas hiltzeko erabakian parte hartu zutenek ez zioten hasitako borroka armatuari jarraitpenik eman. Militante berriak heldu ziren, ordura bitartean egin zenaren ondorioz handituz eta handituz joango zen berebiziko bultzada eman ziotenak.

Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi militanteak hil ziren gero. Ez ziren ETAkoak, EGikoak baizik.

ETArekin uztartuko zen EGI, Joseba Rezolaren aginduz eta isilpean trebatua da; CIAko euskal agente Joseba Emaldiren eskutiko entrenamendu militarren bat baztertu gabe. Horieta-ko parte nabarmen batek ETA (pm) hornitu zuen eta ekintza gogorre-tan hartuko zuten parte segituan.

1970: “Euskal nazionalismoaren historia baita frankismoarena ere, bi alditan banatzen da: Burgos aurretikoa eta ondorengoa”. Julio Ugarteren zita da hau ere.

Ugarte bera, 1969an ETA barregarria laga duena, Burgosko prozesuan etakideen jarreraz poztu eta berotu da. Izan ere, Euskadi urte luzetan alde batera utzita egon ostean munduko mapan jarri baitzuten etakideek. Burgosko auziaren ondoren, Carrero Blancoren aurkako atentatuak Euskadiz eta euskaldunetz mintzarazten du mundu osoa. Hainbat adituk, oraindik ere tematuta jarraitzen dute eta, atentatuaren atzean ezkutuko esku gordeak ikusi nahi dituzte, CIArenak barne. Frogarik ezean, euren desio bakarra hau da: ETAREN egiletasuna ezeztatu nahi dute egun ere, funtsean, gerra zibila-ren galtzaileen mendekua izan zena ezabatzeko, Espainiako Estatuaren historia aldatu zuelako. Atentatuaren ikusgarritasunak eta “garbitasunak” are oihartzun gehiago eman zion mundu osoan. Ondoren, laster, Rolandoko kafetegia-aren atentatua heldu zen, “zikinena”, bere egiletasuna egundaino [ETAk] onartu ez duena.

Rolandoko atentatua “orbaina” da ETAREN historian. Beranduago, ETAREN komunikatua hau agertu zen: “Borrokan guztia ez da perfektua eta garbia: Iraultzak ekintza gogorak eta tragikoak ditu”. Trantsizioaren ondoren etorri zena iragarri zuen nolabait? Iragartzen du, beharbada, ETAko buruzagien buruan “gerra garbirik” ez dagoen ideia hasten dela finkatzen nolabait, bizi-bizirik dauden hainbat premisa iraultzaileekin kontraesanetan egon arren. ■

